

BESTELAKO XEDAPENAK

LEHENDAKARITZA

2465

EBAZPENA, 2015eko martxoaren 24koa, Emakunde–Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariarena, Begira / publizitate eta komunikazio ez-sexista erabiltzeko Aholku Batzordearen osaera aldatzeko dena.

Begira / publizitate eta komunikazio ez-sexista erabiltzeko Aholku Batzordearen ekainaren 11ko 360/2013 Dekretuko 7. artikulua batzorde hori zeinek osatuko duten zehazten du. Halaber, kide horien izendapena Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen zuzendariari dagokiola ezartzen du.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailean aldaketa bat izan da. Ondorioz, Batzordearen osaera aldatu da, eta horrexegatik ezinbestekoa da Batzordeko bokal baten izendapena egitea, eguneratuta gera dadin.

Aurrez adierazitakoaren arabera, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Haizea Careaga Abaitua andrea izendatzea Begira / publizitate eta komunikazio ez-sexista erabiltzeko Aholku Batzordeko kide, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailearen ordezkari gisa, Sonia González Ubierna andrearen ordezkari.

Bigarrena.– Ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko martxoaren 24a.

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaria,
MIREN IZASKUN LANDAIDA LARIZGOITIA.